



Gazteen eta gazteria eragileen lehen sare soziala jaio da, Gaztelink

- **Gaztelink.org** gizarte-mugimenduen topagune birtual bat sortzeko abiatu da
- **Mapa** bakar batean hamaika kolektiboren deialdiak biltzen dira

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteei eta gazte eragileei zuzendutako lehen sare soziala aurkeztu du:

Gaztelink. 2.0 web orrialde berri hau “gizartemugimenduen topagune bat sortzeko abiatu da”.

Facebook eta Tuenti atarien antzeko funtzionamendu batekin baina “sare horiek jasaten duten informazio saturazioa pairatu gabe”, www.gaztelink.org “plaza birtual bat” izateko jaio da. Plaza horretan, gaur egun Interneteko txoko ezberdinetan sakabanatuta dauden informazio eta eragileak bildu nahi dira. Esaterako, gazte-elkarteek, sindikatuek edo instituzioetako gazteria-sailek antolatzen dituzten jarduera, ikastaro, lantalde edo mobilizazio deialdiak. Modu honetan, egitasmo honek eragile ezberdinen arteko “komunikazio eskasa” gainditu nahi du. “Nork ez du noizbait berritzaletzat jotzen zuen proiektu bat martxan jarri eta, handik gutxira, proiektu hori horrezkero martxan zegoela deskubritu?; zenbatetan egon dira hiru hitzaldi arratsalde berean, eta hurrengo egunean, ordea, bat bera ere ez?; zenbat eragile ari dira gauza berean lanean eta, hala ere, ez dute elkar ezagutzen?; zenbat lan bikoizten da?”, argitu du EGK-k. Elkarte-bilguneak azaldu duenez, “ideiak eta proiektuak elkarbanatzeko leku baten premia zegoen; alegia, sareak josteko eta elkartegintza-ehuna indartzeko toki bat: hori dela eta jaio da Gaztelink”.

Agenda, blogak eta eztabaidaguneak

Euskal Gazteriaren webgunea (atari berriaren leloari jarraituz), Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak piztu egin du, “baina aurrerantzean erabiltzaileen esku egongo da”. Horiek emango diote forma Gaztelink sareari. Horretarako, behin izena eman eta gero (hau da, elkarteari edo erakundeari buruzko informazioa jasoko duen profil bat sortu eta gero), asko dira erabiltzaileek baliatu ditzaketen tresnak: blog bat sortu dezakete, interes berdintsuak dituzten pertsonen lantaldeak sortu, eta eztabaidaguneak ireki. Horrez gain, antolatu dituzten hitzaldi, ikastaro, tailer eta mobilizazioen inguruko informazioa agenda bateratu batean eskegi ditzakete. Jarduera horiek guztiak lehen begi-kolpe batean ikusi ahal izango dira webgune honetan, mapa batean deialdi guztiak seinalatuko baitira. Bestalde, erabiltzaileak sare sozial berrira **harpidetu** daitezke (RSS bitartez); modu horetan, bilgune birtualean eskegitzen diren berritasun guztiak jasoko ditu.



GAKOAK

Zer da Gaztelink?

Sare sozial bat da Gaztelink, hau da, 2.0 web bat. Bertan, erabiltzaileek bere profilan sortu dezakete (bere burua aurkeztu, kontaktu-datuak eman, argazkiak igo, orrialdepropioen lotura argitaratu...), *tabloi* birtual batean informazioa eskegi, eztabaidaforoak ireki, interes beretsuak dituzten pertsonen taldeak sortu eta ikastaro eta beste deialdien informazioa agenda bateratu batean argitaratu.

Nork bultzatu du Gaztelink?

Sustatzailea Euskadiko Gazteriaren Kontseilua da, baina aurrerantzean erabiltzaileen esku egongo da, beraiek izango baitira informazioa igo, blogak sortu eta lantaldeak irekiko dituztenak. EGK beste erabiltzaile bat besterik ez da izango.

Zertarako Gaztelink?

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, beste hainbat eragilek bezala, "elkarte eta gizarte mugimenduen arteko komunikazio falta" antzeman zuen. Hori dela eta, *plaza birtual* bat abiatzea bururatu zitzaion.

Nork sortu dezake profila Gaztelink-en?

Gazte-elkarteek, gizarte-mugimenduek, gazteria-teknikariek eta norbanako gazteek eman dezakete izena Gaztelinken, bai eta gazteria-arloan interesa duen beste edonork ere.

- Ikasle-taldeak (Larrunarri, Aviem Medikuntza ikasleen elkartruckerako euskal elkartea...).
- Astialdi-hezitzaileko talde eta eskolak (Urtxintxa, Euskalerriko Eskautak...).
- Gobernu Kanpoko Erakundeak (AFS Euskadi-interkultura...)
- Sindikatuak (CC.OO Gazteak, ESK...).
- Alderdi politikoen gazte-taldeak (Nuevas Generaciones, Iratzarri...).
- Aldundi zein udaletxeek bultzatutako boluntarior-tza-agentziak (Bolunta...).
- Gazteria-zerbitzuak (Tolosakoa, kasu).
- Izena eman duten norbanakoak.

Non dago euskal gazteria? Kanpaina.

Gaztelink ezagutzera emateko, komunikazio kanpaina bat abiatu da, zeinetan, paisaia desertu eta irmoak erakusten dituzten bideo eta argazkien gainean, *Non dago euskal gazteria?* itauntzen baiten. Irudiak eta ikus-entzunezko horiek e-maila, Facebook, Tuenti eta www.egk.org orrialdearen bidez zabaldu dira. Modu honetan, ikusmina sortu nahi izan du EGK-k, eta horretarako Gaztelink-eko balizko erabiltzaileek darabilten kanalak erabili ditu.



Kanpainaren irudi batzuk (www.egk.org eskuratu daitezke):

